



Arartekoaren 2016R-1710-15 Ebazpena, 2016ko apirilaren 20koa. Horren bidez, gomendatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari baliogabetu dezan laguntza-eskaera baten prozeduran emandako ebazpena. Delako eskaera seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzeko dekretuak xedatutakoari helduz egin zen (abenduaren 19ko 255/2006 Dekretua).

Aurrekariak

1. Herritar batek erakunde honengana jo du Arartekoaren esku-hartzea eskatuz, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak alaba bat jaio zitzaionean eskatu zuen laguntza ukatu ziola eta. Ezetsitako laguntza-eskaera seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzeko dekretuari helduz egin zuen (255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa).

Kexagileak dioenez, laguntza-eskaera 2014ko maiatzaren 4an aurkeztu zuen, beharrezkoa zen dokumentazioa erantsita, besteak beste bere aurrezki-libretaren kopia, dagokion banku-erakundeak emana, zeinean ageri baitziren kontuaren azken hamar digituak eta aipatutako banku-erakundearen identifikazioa.

2014ko irailaren 29an Eusko Jaurlaritzak eskatu zion, errekerimendu-idazki batez, aurkez zezala, 10eguneko epean, *“Laguntza kobratu nahi den aurrezki-libretaren edo kontu korrontearen titulartasun-datuen fotokopia. Beharrezkoa da eskatzailea kontuaren titularra izatea”*, eta ohartarazten zion hala egin ezean eskarian atzera egiten zuela joko zuela. Errekerimendu-idazkian jakinarazten zitzaion, halaber, dokumentazioa postaz bidali behar zuela Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren lurralde-ordezkaritzara, edo, bestela, interesdunak berak Zuzenean zerbitzuan aurkeztu.

2014ko irailaren 30ean interesdunak eskatzen zitzaion kontuaren 20 digituen fotokopia bat bidali zuen posta-bulegotik, gutun-azalean espediente-zenbakiaren erreferentzia adierazita, eta eginbidea bete izana ziurtatzeko, gutuna posta ziurtatuz bidali zuen.

Kexagilea harriturik geratu zen jakinarazi zitzaionean Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak jotzen zuela, 2014ko azaroaren 5eko ebazpenez, atzera egin zuela laguntza-eskaeran, eta hala ebatzi zuela argudiatuz errekerimenduaren epea amaiturik interesdunak ez zuela aurkeztu eskatutako dokumentazioa, ebazpenean bertan adierazten zitzaion bezala.

2014ko azaroaren 20an kexagileak gorako errekurtsioa ezarri zuen ebazpenaren aurka, berriz ere libretaren kopia erantsita, eta, orduko hartan, postetxean eman zioten frogagiria ere gehituta, hasierako eskaera zuzentzeko eskatu zitzaion dokumentazioa bidali izana frogatzeko.





2015eko abuztuan gorako errekurtsioaz emandako ebazpenean sailak uko egin zion kexagilearen eskaerari, ebazpenaren arrazoi gisa adieraziz kexagileak ez ziola erantzun eskaera zuzentzeko egin zitzaion errekerimenduari.

2. Kexa azterturik, izapideetara onartu genuen, eta, hala, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarengana jo genuen, kexagilearen laguntza-eskaerari emandako ukoaz galdetuz. Gure idazkian adierazten genion sailari interesdunak aurkeztu zuela erakunde honetan posta-bulegoan eman zioten ziurtagiriaren kopia bat, zeinean ageri baitziren igorlearen izen-abizenak, hartzailearen identifikazioa eta dokumentazioaren bidalketa-data, eta horren bitartez egiaztaturik geratzen zela 2014ko irailaren 30ean bidalketa bat egin zuela sailaren lurralde-ordezkaritzara eta bidalketa urriaren 1ean entregatu zela ordezkaritzan, interesdunari helarazitako zuzenketa-errekerimenduan zehazten zen epearen barruan, beraz. Kontuan izanik postetxeko frogagiriak egiaztatzen zuela interesdunak epearen barruan bidali zuela dokumentazioa eta administrazioak epe barruan jaso zuela, jakin nahi izan genuen zer dokumentazio jaso zuten zehazki lurralde-ordezkaritzan 2014ko urriaren 1ean, eta dokumentazio hura ba ote zegoen interesdunak bere konturako seme-alabengatik egindako laguntza-eskaeraren espedientean. Eskatu genuen, bestalde, delako dokumentazioa espedientean egon ezean adieraz ziezagutela non zegoen, edonola ere herri-administrazio horren esku egon behar zuen eta.
3. Kexagileak, bere aldetik, bere laguntza-espedienterako irispidea eskatu zion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, eta, era horretan, jakin zuen —eta hala adierazi zigun— espedientean ez zela ageri bere banku-libretaren 20 digituen agiria, zuzenketa-errekerimenduari erantzunez bidali egin zuen arren.
4. Arartekoaren idazkiari erantzunez, sailak adierazi zuen interesdunak ez zuela aurkeztu eskatu zitzaion dokumentazioa, eta horixe izan zela eskaeran atzera egin zuela jotzeko arrazoia. Gorako errekurtsioari dagokionez, adierazten zuen kexagileak postetxeko bidalketa-ziurtagiriaren kopia aurkeztu zuela, baina ziurtagiria gutun-azal itxi batena izanik ez dagoela jakiterik zer bidali zuen zehazki. Sailak gaineratzen zuenez, gorako-errekurtsioaren ebazpenean *“berariaz adierazten zitzaion errekurtsio-egileari agiriak aurkezteko modua”* eta aipatzen zuen, horren harira, zer dioen 3. artikuluan abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuak, posta-zerbitzuak arautzen duen erregelamendua onartzekoak¹, gaineratuz interesdunak ez zuela aurkezpen-eredu horren arabera gutunik bidali.

¹ **1829/1999 Errege Dekretua**, abenduaren 3koa, posta-zerbitzuak emateko era arautzen duen erregelamendua onartzekoak, **31. artikulua**:

“Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. Estas circunstancias deberán figurar en el resguardo justificativo de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su



Gogoetak

1. Abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuak, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen duenak, zehazten du 20.2 artikuluan zer agiri aurkeztu behar diren dekretuak berak arautzen dituen laguntzen eskaeretan, eta agiri horietako bat honako hau da: *“f) Laguntza kobratu nahi den aurrezki-libretaren edo banku-korrontearen titulartasun-datuaren fotokopia.”*

Eusko Jaurlaritzak Arartekoari helarazitako erantzunean onartzen duenez *“Eskaerarekin batera aurkeztutako agiriekin, eskatzaileak Kutxabank aurrezki-kutxako ziurtagiria aurkeztu zuen”*; hau da, kexagileak kontu bat daukan banku-erakundeak emandako agiri bat, kontuaren titulartasun-datuak objektiboki eta era ofizialez frogatzeko.

Hala ere, nahiz eta banku-erakundeak emandako agirian adierazten ziren datuak nahikoa izan kexagilearen titulartasuneko banku-kontua identifikatzeko, egia da bankuaren agiri hartan ez zirela ageri aurrezki-kontuaren 20 digituak, 10 digitu bakarrik, eta horiekin bat, beste informazio-datu batzuk, hala nola entitatearen izena eta kontua inskribatuta dagoen bulegoaren edo sukurtsalaren erreferentzia. Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak oker iritzi zion dokumentazioari, eta eskatu zion laguntzaren eskatzaileari berriz aurkez zitzala banku-datuak eskaera zuzentzeko, baina orduko hartan kontuaren 20 digituak jakinaraziz.

Hona iritsita, azpimarratu behar dugu kexaren sustatzaileak zuzen eta Zuzenbidearen arabera jokatu zuela, laguntza-eskaerarekin batera 255/2006 Dekretuan adierazten diren agiriak aurkeztu baitzituen, eta guk gorago dekretuaren 20.2 artikuluan f) letra hitzez hitz aipatzean ohartarazi nahi genuenez, xedapen horretan ez da inondik ere zehazten nolakoa izan behar duen banku-datuaren agiriak, ezta aipatu ere kontuaren titulartasun-datuak kontuaren 20 digituen bidez adierazi behar direnik derrigorrez. Uste dugu kexagileak zegokion guztia egin zuela, eta administrazio honi bere eskaera helarazi zion unean bertan bete egin zuela horrelako eskaerekin batera aurkeztu beharreko agiriei buruzko araua, zeren banku-erakundeak eman zion eta berak aurkeztu zuen ziurtagiri ofizial eta zigiludunarekin egiaztaturik geratzen baitzen, aipatutako arauan xedatzen den eran, erakunde hartako kontuaren titularra zela. Hala, ziurtagiriak, gure iritziz, banku-kontua

identidad con el original, en la primera página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.

Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.

Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en su normativa de desarrollo.”





egoki identifikatzeaz gain, behar bezala egiaztatzen zuen titularra interesduna zela, 255/2006 Dekretuaren 20.2 f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, alegia. Alde horretatik, ondorengo kudeaketari begira administrazio horrek lagungarriagoa irizten badio informazioa banku-kontuaren 10 digituekin gabe 20ekin emateari eta entitatea eta bulegoa xeheki identifikatzeari, hori beste kontu bat da, eta, hala eta guztiz ere, ezin da horrekin arrazoitu administrazio horrek zuzenketa-izapidearen ondoren emandako azken ebazpena, zeinaren bidez herri-administrazioak, eskaria osagabe zegoela argudiatuz, iritzi baitzuen interesdunak atzera egiten zuela berak hasitako eskaera-prozeduran.

Gauzak hala, ondorioztatzen dugu ondorengo zuzenketa-izapiderik izan ez balitz ere, interesdunak egoki bete zituela *ab initio* mota horretako eskaeratarako araututa dauden eskakizunak, eta, beraz, eskaera izapidetu egin beharko zatekeela, administrazioaren araubidezko ahalmen batez ari garelako, irizpidekotasunerako aukerarik ez dagoen kasu batez, beraz, eta, ondorioz, administrazioak ezin zuen arau aplikagarrian aurreikusten denaz bestelako erabakirik hartu baldin eta eskaerak betekizun formak guztiak betetzen bazituen, gertatu zen bezalaxe, hain zuzen ere.

Esandakoaren haritik, pentsatzekoa da administrazioak interesdunari eskatutako zuzenketa-izapideak, zeinaren arabera kontuaren 20 digituak helarazi behar baitzizkion Eusko Jaurlaritzari, ez zuela jokatu interesdunaren aldeko berme gisa —eta horixe da, hain justu, 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 71. artikuluan duen asmoa²—, baizik eta egokiera eman zuen laguntzen araudian aurreikusten ez den betekizun bat gehitzeko. Hala, bada, eskatzaileak errekerimendua bete ez balu ere, ezin izango zen hortik ondorioztatu atzera egiten zuenik, eskaera-izapidean bertan bete egin baitzituen araudian zehazten diren eskakizun formalak.

2. Harago joanez, postetxeko ziurtagiriak guztiz argi uzten du interesdunak, zuzenketa-errekerimendua jaso eta biharamunean, eta errekerimenduan azaltzen ziren jarraibideak betez, agiri bat bidali zuela postaz, zehazki, eskatu zitzaion agiria, berak dioenaren arabera. Hala eta guztiz ere, horixe da, prozeduraren une hartan eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu ez izana, hain justu, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak interesdunak eskaeran atzera egin zuela ebazteko darabilen arrazoia. Azter dezagun, hartara, bigarren puntu hori, nahiz eta, aurreko gogoetan adierazi dugun bezala, zuzenketa-izapideak ezin dituen sortu dagokion dekretuan aurreikusten ez diren betekizunak.

² **71. artikulua. Eskabidea zuzendu eta hobetzea**

1. Prozedura hasteko eskabidean betetzen ez badira aurreko artikuluko baldintzak edo aplikagarri den berariazko legedian eskatutakoak, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena 42. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.





Administrazioak eskaeran igarritako akatsa zuzentzeko errekerimendua jasotakoan, interesdunak sinesgarriro frogatu zuen agiri batzuk aurkeztu zituela behar zen epean eta tokian, eta berresten du eskatu zitzaizkion agiriak eurak zirela. Hala izan zela egiaztatzeko interesdunak aurkezten duen postetxeko frogagirian ageri denez, han agiri bat jaso zuten, eskatzailearen izenean aurkeztua eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Gipuzkoan duen ordezkartzara zuzendua, eta delako agirian, gainera, idatzita zegoen laguntza-espeditarearen erreferentzia.

Egia da kexaren sustatzaileak ez zuela bidalitako dokumentazioaren kopiarik egin, eta ez zuela eskatu, ziurrago jokatzearen, postetxean sina zezatela bidaltzen zuen orrialdea, nahiz eta hala egiteko agindu, 31. artikuluan, *abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuak, posta-zerbitzuak emateko era arautzen duen erregelamendua onartzekoak*, dekretuaren arabera hala jokatu behar baitute herritarrek herri-administrazioetako organoei postaz zuzentzen dizkieten idazkiak onartuak izan daitezela. Interesdunak dioenez, ez zekien hala aurkeztu behar zuenik, eta, edonola ere, postetxean ez zioten era horretan egiteko eskatu; aitzitik, bidalketaren ziurtagiria eman zioten, posta ziurtatuz bidaltzen zuen gutun-azalaren barruko agiriaren lehen orrialdearen kopia bat eskatu gabe. Kexagileak pentsatu zuen agiria posta ziurtatuz bidaltzea nahikoa zela entregatu egingo zela bermatzeko, eta era horretan bete egiten zuela errekerimendua.

Kontuak kontu, interesdunak frogatuta utzi du agiri bat bidali zuela sailaren Lurralde Ordezkartzara, errekerimenduko argibideei jarraituta. Beraz, administrazioari dagokio egiaztatzea delako agiria egon badagoen, eta haren edukia bat ote datorren eskatutakoarekin, ez baitago zalantzarik interesdunak agiri bat igorri zuela eta Eusko Jaurlaritzako sail horrek jaso zuela, hala ageri baita postetxeak eman eta interesdunak daukan agirian, zeinaren kopia bat erantsi baitzion, bestalde, administrazioan jarritako gorako errekurtsuari.

Ohartarazi nahi dugu, haatik, administrazio horrek ez diola erantzun erakunde honi non dagoen agiri hura, ezta azaldu ere zein zen berak jasotako dokumentazioaren edukia. Administrazio horrek hain garrantzi handiko puntuaren inguruan erantzun ez izanak pentsarazten digu agiria beharbada galdu egin zela. Hala izan balitz, arrazoia funtzionamendu desegokia izango zen, eta erantzukizundun bakarra administrazio hori; administrazioaren huts bat izango litzateke, inondik ere ez baliagarria prozedurako interesduna den herritarren aurkako egintza kargagarri bat arrazoitzeko.

3. 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, idazbidez aurreikusten du egintza kargagarriak libreki baliogabetzeko aukera, eta, izan ere, hala ondorioztatzen da hona hitzez hitz dakargun haren 105. artikulutik:





105. artikulua. Ekintzak errebokatzea eta hutsen zuzenketa

1. Herri-administrazioek edozein unetan erreboka ditzakete kargak ezartzen dituzten edo inoren kalterako diren beren egintzak, beti ere, errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten jaregite edo salbuespena, edo berdintasun printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa ez bada.

Hizpide dugun kasuan, alde batetik administrazioak ordenamendu juridikoan aurreikusten ez den eskakizun bat egin dio herritarrari, eta hura baliatuz uko egin dio interesdunaren uziari. Bestetik, gerta liteke herri-administrazioak, kontrako frogarik ezean, agiri bat galdu izana, eta hala izan bada, administrazioari dagokio galeraren erantzukizuna, inolako aukerarik gabe, beraz, gertatutakoaren ondorio kaltegarriak herritarrari egozteko. Aurreko guztiagatik, uste dugu egintzak baliogabetu egin behar direla.

Izan ere, kasu honetan, gure iritziz, administrazioaren bi okerreko ekintza izan dira: lehenik, exijitu du aurkez dadila laguntza-eskaerei buruzko araudian aurreikusten ez den agiri bat, eta, bigarren, galdu bide da, egoitza administratiboan, interesdunak administrazioak bidali zion akatsen zuzenketa-errekerimenduari erantzunez bidalitako agiria. Kasu honetan agerikoa da administrazioaren funtzionamendu desegokia, nahikoa arrazoia, hori, interesdunak gorako errekurtsio bidez aurkaratutako egintza erabat baliogabeturik gera dadin. Kontuan izanik aipatutako gorako errekurtsio ezetsita dagoela lehendik, uste dugu administrazio horrek errebokatu egin behar dituela bere jarduketak, eta prozedura administrazioaren okerreko funtzionamendua gertatu zen unera itzularazi. Administrazio horrek eskura dauzka, dagoeneko, banku-kontuaren 20 digituak, kexagileak bigarren aldiz helarazi baitzizkion gorako errekurtsioaren izapidean; horren arabera, orain kexagileak egindako eskaeraren izapideekin jarraitu behar da, eta 255/2006 Dekretuaren xedapenei helduz haren gainean ebatzi, behin azterturik ea betetzen diren laguntza emateko eskakizun materialak.

Azaldutako argudioak aintzat harturik, Eusko Jaurlaritzak, *Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak* aipatutako 105. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, **baliogabetu beharko luke emandako ebazpen hura, zeinaren bidez jo baitzen interesdunak atzera egiten zuela laguntzen eskaera-prozeduran, prozedura lehenagora itzularaziz eta kexagileak aurkeztutako eskaera dagokion bezala izapidetuz.**





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzeko abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak baliogabetu egin dezala interesdunak bigarren alaba izan zuela eta aurkeztu zuen eskaeraren prozeduran emandako ebazpena, pertsona horrek eskaeran atzera egiten zuela iritzi zuena, **itzularaz dezala prozedura, eta behar den bezala izapidetu dezala kexagilearen eskaera.**

